



Etxalarko Ibilbideak



“ZENTINELAKO MEGALITOAK” SL NA-X | I.I.D.E.: .

Luz.: 5,300 km | Des.: 150 m | Zail.: 2 | Den.: 2 h.

Zentinela mendiko hainbat megalito, Historiaurreko artzainen eraikuntzak (trikuharri, harrespil, zutari eta tumulu) ezagutzeko ibilbide zirkularra. Ikuspegi ederrak, baina zuhaitzik ez bide osoan. Elordiko lepoan hasten da, baina bertara autoz ailegatzerik ez denez, oinez iristeko bi aukera ditugu, GR-11 ibilbideari jarraituz:

- **Lakain-Apezborro auzotik (1,900 km):** Iguzkiagerrekoborda landetxeko bidegurutzera pasa eta gero, zabalgunea. Pista zabaletik Orenbentako Atsedenguneraino; bertan eskuinetara jo, eta GR-11tik 1,350 km maldan gora eginez, Elordiko lepora ailegatuko gara. ERNE: irispidea nekazari-bide asfaltatua da, estua eta maldatsua. Ez da komendagarria auto handiekin .
- **Urtsumiatsako lepotik (2,500 km):** Etxalar-Zugarramurdiko bide asfaltatuaren 7. km-an; eskuinean aparkalekua. Ezkerretara jo (Ipar-mendebaldera), hasieran mendi magaletik eta gero bizkarretik igotzen den pista zabaletik; kilometro batera, ezkerrean, Irazako tumulua dago (ikus deskripzioa GR-11 “Pirinioko Ibilaldia”n).

IBILBIDEA

- 0,000 km: **ELORDIKO LEPOA** (560 m), ardi borda eta belagia (Ekialdean). Bide zabala (GR-11), Orenbentako eta Urtsumiatsako lepoak lotzen dituena. Hemen ibilbideak bi sektore zirkular ditu: Zentinela (Ekialdean; Urtsumiatsatik, eskuinera) eta Maiko Gaina (Mendebaldean; Urtsumiatsatik, ezkerrean). Zentinelako norabidean, ardi bordako belagiko balangoa pasatu eta traktore marretatik igo.
- 0,360 km: Belagia eta bigarren balangoa zeharkatu eta gero, bide zabala (itzultzekoa). Metro gutxira utzi eta eskuinera jo, iratzeen arteko bidexka zailetik eta zelai batetik segitzeko.
- 0,650 km: Lepoa eta Pagolleta-Orizkiko megalitoak (zutari etzan bat eta bi harrespil-mairubaratz). Bizkarretik zuzen segitu, harriztar bat eskuinetik inguratuz.
- 0,950 km: Bagoiltako lepoa (625 m) eta trikuharria, itzultzeko bideak zeharkatuko dugun belagi itxi baten ondoan. Hesiaren ondok segitu, eskuinean basoberri bat dugularik. 400 metrora, hesiak ezkerretik igotzen delarik, norabidea eta altuera mantendu hegoaldeko magaletik, txilar eta iratzeen arteko bidexka zailetik.
- 1,900 km: Ibarbide txiki bat pasa eta gero, harriztar handiko mendi bizkar belartsura iristen gara. Itzulia hasten da: ezkerrean biziki egin, bizkarretik Mendebaldeko norabidean, Orizkiko (640 m) megalitoen multzotik (zutari bat eta tumulu bat) pasatuz. Bidexkak ezkerretik zeharka gorantz egiten du.
- 2,250 km: **ALTSOROIKO BIZKARRA** (660 m) eta megalitoen multzoa, Hego-iparraldeko norabidean (hiru harrespil-mairubaratz eta bi zutari etzan). Mendi bizkar zabaletik igoera xamurra mantendu (Zentinelako gailurra: 669 m), eskuinean Iparraldeko amildegia eta ezkerretik belagi bateko hesia utziz.
- 2,750 km: Jaitsiera bizia hasten denean, bidea utzi eta lehen aipatutako hesia gainditu eta belagia traktore marretatik zeharkatu, balango batera iritsi arte.





Etxalarko Ibilbideak



- 2,950 km: Bagoiltako lepoa eta trikuharria (joateko bidea). Bidea bitan banatzen da: eskuineko bide zabaletik segi, bizkarraren babesean, 0,360 km-an gurutzatzen den belagi bat bukatu arte. Joaneko bidetik jarraitu.
- 3,850 km: **ELORDIKO LEPOA** (560 m): Bide nagusia gurutzatu (GR-11) eta aurrera jarraitu (mendebaldera) iraleku ireki batean barna, eskuinaldean kota txiki bat utziz. Bigarren lepo batera ailegatuko gara (545 m), Maiko Gainaren oinean. Bidexkak gora egin eta tontorra ingurutzen du (581 m). Iparraldeko isurialdean beste trikuharri bat dago. Toki soilean zehar, lepora jaitsi eta bide beretik itzuli.
- 5,300 km: **ELORDIKO LEPOA** (550 m). Itzulia bide beretik egiten da, Ursumiatsako lepora edo Orenbentako Atsedengunera.

IBILBIDEA

- 0,000 km: **ELORDIKO LEPOA** (550 m), GR-11 ibilbidearen pasabidea, Orenbentako Atsedengunetik eta Ursumiatsako lepotik datozen bideen elkargunea. Megalitoak ezagutzeko ibilbide honek bi sektore ditu, biak zirkularrak:
 - **Zentinelako Bagobilletako sektorea** (4,300 km luze eta 100 m-ko desnibela), Elorditik ekialdean (Ursumiatsatik etorrira, eskuinetara). Ibilbideak mendi bizkarra du ardatz, eta bertan zazpi megalito ezagutzen ahal dira (*Pagolletako zutarria eta harrespila, Bagolletako lepoko trikuharria, Altsoroiko harrespila eta Bagobilletako tumulua, harrespila eta zutarria*). **ERNE**: tarte honetan belagiak zeharkatu behar dira; ez atera bidexkatik eta balangoak ongi itxi. Halaxe, Zentinelako bizkarrean, ez hurbildu iparraldeko amildegi harritsura.
 - **Madariko Gaineko sektorea** (1,000 km luze eta 25 m-ko desnibela), Elorditik mendebaldean (Ursumiatsatik, ezkerretara). Ibilbideak tontor txiki bat saihestu eta Madariko Gaina inguratzen ditu, iparraldeko magaleko trikuharria bisitatuz.
- 5,300 km: **ELORDIKO LEPOA** (550 m). Itzulia bide beretik egiten da, Ursumiatsako lepora edo Orenbentako Atsedengunera.

